



**Gradu Amaierako Lana**

**AMERIKETARA JOANDAKO EUSKAL  
EMAKUME EMIGRANTEAREN IRUDIA:  
LITERATURAK ESKAINITAKO ADIBIDE  
BATZUK**

**Historiako Gradua**

**2018-2019 Ikasturtea**

**Egilea: Cristina Mendiguren Sampedro**

**Tutorea: Óscar Álvarez Gila**

**Saila: Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia saila**

## Lanaren laburpena

Emakumeen istorioak denbora luzean isilarazita egon dira, Historiaren idazle eta transmisoreak gizonak izan baitira luzaroan, emakumearen esparrua etxeko pribatutasunera mugatua izan den heinean. Emigrazioaz hitz egitean, eta bereiziki euskaldunen Ameriketarako emigrazioaz, gizonen irudiak datozkigu burura, Historiak ere ikuspegi androzentrikoa duelako. Alabaina, gauzak aldatu nahian gabiltza eta Historiaren baitan emakumeek izandako parte hartzeari ahotsa eman nahian gaude.

Lan honek euskal emakume emigrantearen papera Ameriketara nolakoa izan zen argitaratzea du helburu eta horretarako iturri bibliografikoez zein iturri literarioez baliatuko gara. Lanaren asmoa literaturak eskaintzen duen euskal emakume emigranteak Amerikan izandako papera errealitatearekin bat etortzen den aztertzea litzateke. Horretarako lehendabizi euskal emakume emigrantea Ameriketara modu orokorrean aztertuko da, honen baitan atal ezberdinak landuko direlarik, hala nola, zer esan den eta zer ez emakumeen emigrazioari buruz, nolakoa zen emakumeen egoera Euskal Herrian eta zerk bultzatu zituen Ameriketara joatea baita Ameriketara izandako lan ezberdinak ere.

Esparru geografikoari dagokionez, Ameriketako kontinente osoan emakumeak izandako irudia aztertzea litzateke egokiena euskaldunak kontinente osoan ibili zirelako. Beraz, lanean zehar bai Iparraldeko zein Hegoaldeko Ameriketara olatu migrazioen garaian (XIX. mendearen bigarren erdialdetik XX. mendeko lehen hamarkadetara arte) euskal emakume emigranteak, Robert Laxalt eta Jon Andoni Irazustaren eleberri batzuk oinarritzat harturik, izandako irudia nolakoa izan den aztertuko da; modu kritiko batean, beti ere kontuan izanda liburu-takako autoreek duten ikuspegia eta testuingurua. Idazleen liburu-takan emakume ezberdinek istorioetan hartutako papera ikertuko da azpi-atl ezberdinak kontuan hartuz, emakumeek Ameriketara joateko izan zuten arrazoia, Ameriketara gauzatutako lana, seme-alabekin zein bikotearekin zituzten harremanak eta Euskal Herriarekiko zuten lotura besteak beste.

Bukatzeko, idazleek eskaintutako irudia eta benetan euskal emakume emigranteek Ameriketara izandako papera bat datozen aztertuko da, baita emakume horiek benetan izandako irudia nolakoa izan den azaltzea. Lan honen bidez Euskal Herriatik Ameriketara abiatutako emakumei eman nahi zaie merezi duten kontaketa, beraiek

ere Euskal Herriko emigrazio mugimenduen parte izan direlako eta beraien irudiak ere helarazpena merezi duelako.

## **AURKIBIDEA**

0.Sarrera.....	5
1.Marko teorikoa.....	6
2.Euskal emakume emigrantearen irudia literaturan .....	15
3.Ondorioak .....	26
Bibliografia .....	28

## 0.Sarrera

Emakumeen historia egitea kontu zaila da, askotan haiek izan dira denboraren memoria bizirik mantentzeko arduradunak, baina gehienbat anonimoki edo etxeko zein familiaren pribatutasunetik egin dute (Fernandez Fonseca eta Prado Antunez, 2000: 277). Historian zehar emakume falta izateak ere zerikusia dauka historia gizonak idatzia egotearekin eta betidanik emakumeen papera gutxietsirik egotearekin. Adibidez, Far West-ari buruz idatzi diren historia gehienetan gizonen ekintza heroikoak kontatzen zentratu dira, kontuan izan gabe tonu apalagoak, emakumearen historiak, gehienbat eguneroko kontuekin lotuak daudenak, eta bizitza arruntak dira hain zuzen ere Mendebaldearen benetako historia (Garikano, 2009: 196-197). Izan ere, egunerokotasunaren historia horrek eta mikro-historia deritzogunak, emigratioaren esperientzia eta ikerketan asko lagundu duen kontua da, betiere testuinguru eta errealitate espezifikoko batzuetatik enfokaturik (Irianni, 2010: 236). Hortaz, emakumeen egunerokotasuna ez da gutxiestekoa historia kontatzerako orduan, historiari buruz horiek ere zeresan asko dutelako eta esperientzia pertsonalak (emakume zein gizonenak), guztion historiaren zati izan daitezkeelako.

Emakumeen historia faltak eta euskal emakume emigranteak izandako bizitzaz gehiago jakiteak bultzatu gaitu lan hau aurrera eramatera. Beraz, lan honen helburua migrazio handien garaian (1880-1940) Ameriketara joan den euskal emakumearen irudia lau liburu literariotan aztertzea izango da eta aldi berean liburu hauek eskaintzen diguten irudia errealitatearekin bat datorren ikustea. Emakume emigrantearen arlo ezberdinetan sakonduko da, hala nola, zergatik eta nola bidaiatu zuen Amerikara, zer nolako lana zuen Amerikan, familiaren baitan zer nolako rola hartu zuen, gizonarekin eta seme-alabekin zituen harremanak, Euskal Herriarekiko zuen lotura edota Euskal Herrian geratu zen emakumearen bizitzatik asko ezberdintzen zenetz. Honetarako hipotesi batetik abiatuko gara: liburu hauetan eta oro har, lanean zehar erabiliko ditudan iturri gehienetan emakumearen irudia bigarren plano batean geratuko dela. Hau da, ez da liburuetako protagonista izango ezta ikerketa foku nagusia izango, eta emakumearen zereginen aipamena egotekotan, beti gizonaren irudiak itzala egingo dio. Euskal emakume emigranteen lanaren kasuan, etxeko andre edo zerbitzari gisa agertuko dela uste dugu eta umeen zaintza eta heziketa berari egokituko zaiola. Horrez gain, gizonari bere zereginetan edota lanean laguntzeko prest egongo dena beti bera izango da, seme-

alabei ere euskal kulturaren berri emateaz arduratuko delarik. Ameriketara joateko grina norbaitek sortaraziko diola uste dugu, eta pertsonai hori ziur aski gizonezkoa izango da, inola ere ez da agertuko emakumea bera bakarrik bidaiatzen, edota bere ideia edo erabakien erantzule izaten.

Hortaz, lanean zehar galdera hauei erantzuten saiatuko gara: nola dago Ameriketara emigratutako euskal emakumea irudikatua liburu literario hauetan? Hipotesiarekin bat al dator? Zenbateraino dira irudikapen hauek gertakizun historikoen isla?

## **1.Marko teorikoa**

### 1.1.Euskaldunak Amerikarantz

*Para los vasco-peninsulares, amén de vasco-franceses y aún navarros (...) la diáspora recobraría pujanza en años 40 del siglo XIX* (Santiso González, 1993: 84). Amerikaranzko emigrazioa Euskal Herriko eremu guztietatik eta data goiztiarretatik abiatu ziren. Douglass eta Bilbaok (1975) uste duten moduan, euskaldunak izan ziren kontinentetik gehien banatu ziren talde emigrantea XIX. mendean zehar eta noski, gerora ere horrela izan zela ikusiko da. Hasiara baten, gehienak Panpa edo Montevideora gerturatzen ziren, bertan oso baliotsuak baitziren artilearen industrian (Santiso González, 1993: 84). XIX. mende erdirako hauetako asko Estatu Batuetako mendebalderantz joan ziren *California gold rush* fenomenoaren dela eta (Douglass eta Bilbao, 1975: 2). Urre zoramenak Euskal Herrikoak ez ezik, Hego Amerikan zeuden euskaldunak ere erakarri zituen (Elizondo, 2010). Hala ere, bertara iristean, askok ez zuten urrearen berririk izan eta Estatu Batuetako lurralde zabaletatik gelditu behar izan ziren artzain lanetan. Hala ere, guztiek ez zuten lanbide hau aukeratu, bai ordea gehienek.

XIX. mende erdian Ameriketaranzko bidea hartu zuten euskaldunek orokorrean hiru arrazoi nagusi zuten erabaki hori hartzeko: lehenengoa, Euskal Herriko familia gehienek senideren bat Amerikan izatea; bigarrena, garai horretan familiako ondarea ondorengo batentzako soilik izaten zen, hortaz, sistema ekonomikotik at geratzen zirenek bizimodua aurrera ateratzeko beste bide batzuk aukeratu behar izaten zutelak. Azken arrazoia, Ameriketara zegoen familiarren batek Euskal Herriko lagun edo senide bati lana ematea izango zen, hau da, lan esku beharra (Santiso González, 1993: 86-87).

1880tik 1940era emango zen emigrazio olatu handiena Amerikarantz, baina etapa honetan ekonomiaren arrazoiak pisu handia izan arren, euskaldun askok erbestealdia igaro behar izan zuten euskal nazionalismoa horren arrazoi zelarik, beraz, Hegoamerika zein Ertamerikarantzko bidea hartuko zuten askok. Hamarkada batzuk beranduago, Gerra Zibilean eta ondorengo urteetan Mexiko, Argentina edota Uruguai espainiar errepublikarren eta euskaldun zein katalan askoren errefuxia bihurtu ziren.

## 1.2.Emakume emigrantea historiografian

Irianniri Argentinara joandako euskal emakume emigranteari buruz idatzitakoaz galdetzean emandako erantzuna aipatuz eman nahi diot sarrera atal honi, bere hitzetan emakume emigranteaz asko dakigu baina gutxi idatzi da. Zergatik fenomeno hau historiografian? Emakumeak historian izandako parte hartzearen inguruan zergatik daude hainbeste hutsune? Eta batez ere, emakumeen emigrazioaren inguruan zergatik ez da idatzi?

González Pérezek hausnartzen duen bezala, historikotasunak izandako karaktere androzentrikoa dela eta emakumeen protagonismoa gizartearen eraikuntzan baztertua izan da. Horrela, historiografiak emakumezkoen diaspora txikietsi du (González Pérez, 2005: 55). XX. mendeko iberoamerikar historiografian ere Espainiatik Amerikara gauzatutako emigrazioaren ikasketek arreta gizonezkoen esperientzietan jarri zuten (Lucci eta Cruset, 2016: 182). Agian emigrazioaren historia kontatzerako orduan gizonak Amerikan izandako paper eraginkorra hartu zen kontuan; edo baliteke aukeraketa emigratuen portzentaiei lotua egotea ere: *el número de hombres por cada 100 mujeres, fue especialmente alto entre 1882 y 1930, llegando a superar en 1892 los 500 hombres por cada 100 mujeres* (Lucci eta Cruset, 2016: 182-183). Beharbada datu hauek lotuak egon daitezke luzaroan lanaren banaketa genero aldetik banatzen zelako eta gizonak etxetik kanpo lan egitea posible zuen heinean, emakumea etxeko pribatutasunera mugatu behar zen. Ikuspegi hori dela eta, Amerikan behar zen eskulana gizonezkoa izango zen eta hauek izango ziren bidaiatzen lehenak.

Alabaina, badakigu emakume emigranteek herrialde hartzaileetan oso paper garrantzitsua izan zutela (González Pérez, 2005: 55), Iriannik berak ere aipatu bezala, kasu askotan gizonak posible izan zuten gogor lan egitea eta dirua lortzea, etxean emakumeen presentzia zegoelako, janaria prestatzen zitelako eta umeak euren zaintzapean zeudelako (Irianni, 2019). Ez hori bakarrik, Argentinan ere, euskaldunek

eta katalanek eraturako borondatezko elkarteetan proiektu soziokultural eta politikoetan parte hartze nabarmena izan zuten emakumeek (Lucci eta Cruset, 2016: 183).

Diskriminazio honen oinarrietako bat zientzia historikoaren eraikuntzan patrio kultural patriarkalek izandako inposizioa izango litzateke (González Pérez, 2005: 55), bestela esanda, historiaren garapena, helarazpena gizonen esku egon dela betidanik eta beraien erara kontatu dute historia. Emakume emigranteek Amerikan hartutako paperak izandako hedapen eskasak argi utziko luke historiografiak pairatutako sexismoa (González Pérez, 2005: 55). Ez da gaurko kontua ordea, milaka urte atzera igaroz gero ere konturatuko ginateke gizonak emakumea isiltasunera, gutxiagokotasunera eta kaskarkerira kondenatu zuela, misoginia gizonak antzinatean sortu baitzuten (Pérez Garzón, 2011). Hala ere, sistema patriarkala indarrean egoteak arestian ikusi den bezala, ez du eragotzi emakumeak munduko edozein lekutara emigratzea eta bertan bizi berri baten aukeraz gozatzea.

Edonola ere, XX. mendeko azken hamarkadetatik aurrera, gutxika bada ere, genero ikasketek arreta berezia jarri dute migrazioen ikerketetan emakumearen paperak izandako problematikan; gehiago aztertu dutelarik emakumeen papera migrazioetan (Lucci eta Cruset, 2016: 182-183). Egun perspektiba eta lan berri hauen helburua González Pérezen lanean oso ondo laburtzen da: *En la actualidad, se trata de deconstruir y reconstruir un mapa geocultural con un diseño, tramado y coherencia más acorde con la realidad y el respeto, reconociendo y aceptando las diferencias de género* (González Pérez, 2005: 55). Honen ildora, hurrengo ataletan euskal emakume emigrantearen egoera, ikertu denaren arabera zer nolakoa izan zen azaltzen saiatuko gara.

### 1.3.Euskal emakume emigrantea

#### 1.3.1.Emakumeen Euskal Herriko egoera

Euskal Herriko emakumearen egoera “naturala” edo XIX. mende eta XX. mendearen lehen herenera arte behintzat emakumeak gizartean bete behar zuen papera eta emakumeari garai hartan egokitzen zitzaion espazioa, Crusetek aipatzen duenez (2005), etxean egotea zen. Etxea zen garai hartan Euskal Herrian giza multzo, lan unitatea eta baita ondare sinbolikoa; etxearen hazkundera eta onura zelarik familiak zuen lehentasuna.



XIX. mende erdian emakumeekiko zegoen ideia gizartean hurrengoa zen: gizonaren menpe zegoela, ezkongabeen kasuan aitak erantzungo zuen alabagatik, bestela senarrak. Emakume ezkonduak ere ez zuen seme-alaben guraso-agintea eta bere senarrari obedientzia zor zion, izan ere, emakumeek ekintza publiko, aktibitate ekonomiko, etxebizitzaren finkapena edo soldata bat jasotzeko beraien senarraren baimena behar zuten. Hezkuntzaren arloan ere emakumeek desabantailak zituzten nahiz eta hezkuntza legeek aldaketa kulturala sustatu nahi izan alfabetizazioaren mesedetan. Halere, oraindik 1930.urtean gizonezkoak alfabetatuagoak zeuden emakumeak baino (Cruset, 2015: 151).

Emigratzen zuen euskal emakumeak jatorrizko patroizko sozial zein kulturalak eramaten zituen berarekin. Hala ere, Argentinako kasuan adibidez, ikus daitekeen moduan, hezkuntza sistema beharrezkoa zenez, neskatoei eta emigratutakoen bigarren generazioei aukera berriak zabalduko zitzaizkien. Horri esker, euskal emakumeak hezkuntza jaso ahal izan zuen, baita informazioa ere, elizaren irakurgaiak edota euskal kolektibitateko prentsa, horiekin batera, jatorrizko aberriarekiko lotura izaten jarraituko du (Cruset, 2015: 151). Irakaskuntzan eta hortaz, Euskal Herriko ohituren eta kulturaren dibulgazioan emakumeek zeresan handia izango dute, beraiek ikasiko dutena gero seme-alabei erakutsiko diela suposatuz gero.

### 1.3.2.Bidaia

Ameriketara emigratzen lehenak gizonak izan ziren, euskal emigrante ohikoena 15-25 urte bitarteko mutil gazte ezkongabea izaten zen, bizi hobe baten bila herritik irteten behar izaten zuena, hasiera baten behintzat. Hala ere, gerora emakumeak ere Euskal Herritik irteten hasiko ziren, Amerikako bidea hartuz. Aurretik joandako ahaide batek edo herriko norbaitek animatua edo iragarki bat irakurri ostean emakumeak Ameriketara abiatzera animatu ziren. Arrazoi ekonomikoa ere izango zen joateko faktoreetako bat, baina gehienbat bizimodu berri baten grinak motibatu zituen milaka emakume, Euskal Herrian zituzten aukera faltekin bultzatuta (Garikano, 2009: 194). Hala ere, Ameriketara lehenago bidaiatzen zuenak gerora bere emazte eta seme-alaba, edo senideak erreklamatu zituen, modu honetan ere emakume askok bidaiatuko zuten Ameriketara (Santiso González, 1993: 92). Dena den, senarraren eskakizuna ez zen bidaiari ekiteko motibo bakarra, beste faktore bat ere bazegoen Santiso Gonzálezen

(1993) ustez, nahiz eta gutxiengo baten emigratzeko aitzakia izan, ezkontzeko proposamena.

Gizonei, kasu askotan, gurasoek animatu zieten emigratzera, beraien esku geratu zelarik semeen billetearen ordainketa. Aldiz, emakumeen kasuan, gurasoek askotan, ez zuten nahi izaten alabak Ameriketara joatea, honen atzean eliza katolikoaren eragina egongo zen. Honen kasu da, Garikanok (2009) kontatzen duen emakume baten adibidea, eta pentsatzekoa da ezagutzen ez diren beste hainbat kasu egongo zirela. Eulalia Ugalderi, 1897an jaioa, anaiak gutunen bidez Idahora joateko animatu zion, arrebak bertan, oportunitate berriak izango zituela uste baitzuen, Mountain Homeko Bengoecheatarren hotelean langilea behar zelako. Hori dela eta, nebak bidaia ordaintzeko dirua bidali zion, baina Eulalia Negurin neskame zegoenez, beraien amari iritsi zitzaion dirua. Amak apaizaren hitzak gogoraraziz, neskak diziplinari alde egitearren joaten zirela Ameriketara, bertan nahi dutena egiteko aske zirelako, ez zion Eulaliari dirua eman. Hortaz, Eulaliak irabazten zuen dirua etxera bidali beharrean, bankuan gorde zuen, bidaia ordaintzeko haina izan arte (Garikano, 2009: 195).

Arestian aipatutako emakumearen kasuak adieraziko liguke zer nolako zailtasunak izan zuten kasu batzuetan euskal emakume gazteek Ameriketara joateko. Oro har, Gilek (2019) aipatu bezala, Espainian emigrazioaren inguruko pentsamoldea nahiko pesimista zen, bertako ekonomiari kaltetzen ziola uste baitzen edota aberriarekiko apurketa suposatzen zuelako. Haatik, emakumeak zirenean emigratu nahi izaten zutenak, ikusi bezala, beste faktore bat gehitzen zaio ikuspegi pesimista horri: elizak predikatzen zuena.

Emakume asko iritsi ziren XIX. mende bukaera eta XX. mende hasieran Hego Amerikara zein Ipar Amerikara, batzuk familiarekin batera emigratu zuten, beste batzuk bakarrik, senarra aurkituko zuten esperoan edo profesionalki hazteko esperoan. Beste asko, beraien orden erlijiosoekin emigratu zuten fedeari jarraiki eta behartsuenei laguntzeko prest (Cruset, 2015: 157). Amerikara iristean batzuk beraien nahiak beteko zituzten, beste askok ez.

### 1.3.3.Lana

Azpi atal honen garrantzia lan honetan berebizikoa litzateke, emakume askori emigratzera bultzatu zien arrazoietakoa bat izan zelako. Lanaren aukerak atek zabaldu

zizkien emakumeei emantzipaziorako bide luzean, pribilegio gisa bihurtu arte lan egiteko aukera emakumeentzat. Hala ere, ohikoa denez, emakumea ugalketa ezaugarriari lotua zegoenez, kontakizun historikoek ez dute asko esan emakumeak lan merkatuan izandako parte hartzeari buruz (Mitidieri, 2018: 11). Horrez gain, lanaren eta bereziki emakumearen lanaren inguruan beste problematika batzuk ager dakizkiguke, hala nola, lanaren esanahia bera zein den. Historiaren, gizartearen parte izateko egindakoen berri izan behar da eta kasu honetan emakumeen parte hartzea gizartean ezkutuan egon da luzaroan faktore produktiboari dagokionean baina horrek ez du esan nahi ez zutela deus ere egin. Gizonen parera lan egin zuten, askotan baliteke ere gehiago egin izatea, emakume izateagatik gizarteak leporatutako genero rolengatik, umeak izateko beharra eta ez nahia, gizonei men egiteko beharra eta ez nahia. Horrek karga bikoizten zien eta die emakumeei langilearena eta amatasun zein emaztearena, nahiz eta historikoki azkenek pisu gehiago izan emakumea irudikatzerakoan.

Euskal Herritik emigratzen zuten emakumeak batez ere etxeko zereginekin lotuak dauden lanetan aritu ziren, hala nola, sukaldaritzan edota zerbitzari gisa. Horrez gain, bada Argentinako kasuan Olariaga familian euskarako irakasle emakume bat, Antonia Luzuriaga de Arrieta (Cruset, 2015). Inude bezala ere lan egin zuten emakume askok, esan beharra dago, hau emigrazio olatuak baino lehen esklaboen lana zela, baina gerora, emakume emigranteen esku geratu zen. Horrez gain, jostun bezala ere lan egin zuten euskal emakume askok batez ere hego Amerikako zonaldean (Cruset, 2015). Garikanok ere (2009) Iparraldeko Amerikan emakume hotelariei buruz hitz egiterakoan bezeroen sendagile edota kasu askotan beste aukerarik ez zegoenean emagin gisa ere ibiltzen zirela aitortzen du. Gerora, euskal nazionalismoa sutuki piztu zen garaian, euskaldun asko erbesteratu behar izan zirenean, emakumeak paper garrantzitsua izan zuen (Vitulo, 2011).

#### 1.3.3.1. Hotelariak

Amerikan izandako euskal emakume emigranteak etxetik kanpo izan zuen lanen artean gehienbat hotelariarena izan dela erakutsi digute luzaroan iturriek, honi erreparatuz gero badirudi ez zirela beste ezertara dedikatu. Horrela izan ez bazen ere, ukaezina da “Euskal Hoteletan” euskal emakumeen presentzia eta garrantzia, bai Hego zein Ipar Amerikan. Instituzio hauek izugarrizko garrantzia izan zuten oro har Amerikan, hauen esanahia oso ondo definitzen duelarik Iriannik:

*En Argentina, en la provincia de Buenos Aires,(...) brindaban la oportunidad de que los inmigrantes reprodujeran sus costumbres sociales y culturales adaptándolas a nuevas dimensiones espaciales y otros ritmos de trabajo. (...) En el oeste americano, el hotel vasco fue una solución para el mismo grupo étnico pero en distintas circunstancias y con ofertas diferentes –ambientales y laborales- del escenario. Ambos escenarios eran fronterizos. Allí habitaban colonos, recién llegados y nativos, (...). El idioma jugó fuertemente en ambos extremos. Al norte, convirtiendo a los hoteles en islas donde apoyarse para llegar informados a un sitio. Al sur, para sentirse en un ámbito acogedor donde practicar el idioma en el que empezaban a caer palabras en el juego del olvido (Irianni, 2016: 16).*

XX. mende hasieran Estatu Batuetara lehen aldiz joaten zirenak, lehen momentuetan euskal hoteletan babestu ziren (Echevarria, 1999). Hau arestian aipatu bezala, hegoaldean ere ematen zen. Estantzia hauetan lagun leial, janaria, lana eta hizkuntzarekin lagundu ahal zien jendea aurkituko zuten iritsi berriek. Ostatu hauek instituzio berriak ziren, lehen aldiz Buenos Aires eta Montevideon agertu ziren eta gerora (1860-1890) Nevada eta Kalifornian agertzen hasi ziren; hasieran estazioetatik gertu zeuden etxe txikiak izango zirelarik.

Hotel, ostatu edo apopilo-etxeetan beti zeuden emakumeak lanean, gizonak ere bertan lan egiten zuten baina orokorrean, artzain joateko sasoia iristean mendira joaten ziren edota beste lan batzuk egiten zituzten. Aldiz, emakumeek ahalegin eta lan-ordu guztiak ostatuetan lanean eta seme-alaben heziketan ziharduten. Beraien ahalegin eta lan guztia oso eskertua izaten zen bezeroengatik, zeintzuek askotan *etxeko ama* bezala deitzen zioten, beraien amak urruti dauden bitartean ostatuetakoa emakumeek beraien papera betetzen baitzuten (Echevarria, 1999: 218-219).

Euskal emakume askok hartu zuten ostatuetakoa gidaritza, eta emakume hauen izen batzuk ezagunak dira gaur egun, Maria Echanis, Gregoria Sabala, Graciana Elizalde eta Theresa Laxalt, besteak beste (Garikano, 2009). Baina ez ziren euskal emakume emigrante guztiak hoteletako jabeak izan, euskal emakume gazte asko, Amerikara iristean ostatu edo hoteletan lan egiten zuten, gehienbat etxeko zerbitzuetakoa lanetan, hala nola, garbiketan eta sukaldaritzan. Emakume gazte hauek askotan beraien

ezkongaiak ostatuetan ezagutzen zituzten lanean zeuden bitartean edo ostatuetako dantzaldi zein ekitaldi sozialak kontrolatzen zeudenean (Echevarria, 1999: 226-227).

Hortaz, mendebaldeko Estatu Batuetan zein Hegoamerikan zeuden euskal hoteletan, emakumeak izugarritzko garrantzia izan zuen. Ez soilik janaria, garbiketa, zerbitzari edo erdiberriei zein gaixoekin zaintza lana egin zutelako, baizik eta bezeroak erakartzeko funtsezkoak izan zirelako, batez ere gizonak erakartzeko:

*Las mujeres que señalan Douglass y Bilbao también eran en un pueblo como Tandil un señuelo para atraer clientela, permanente o sólo a comer, con la intención clara de conformar una pareja con una connacional* (Irianni, 2016: 23).

### 1.3.3.2.Jostunak

Hotelariei edo zerbitzarietara buruz dezente idatzi den arren, euskal emakume emigranteak beste lan askotan ere jardun zuen. Gure lanaren datetatik haratago joan arren, Álvarez Gilaren laneko (2002) taula bat aztertzea gustatuko litzaidake (1. irudia). Honetan 1855eko Buenos Aireseko *Catedral al Norte* eta *San Miguel* parrokiaren euskaldunen zentsua adierazten digu. Lanetik esanguratsuenatal honetarako euskal emakumeen lanean zerbitzarietara batera, portzentaje altuenetarikoa jostun eta modistek dutela izango litzateke (Álvarez Gila, 2002: 475). Baliteke ere euskal jatorria duen emakume baten testigantza izatea Mitidierik bere lanean (2018): *lo mismo trataba la viuda Petrona Lagarza, quien escribía que tanto ella como su hija “trabajaban en costuras” (...)*. Hortaz, jostun emakumeentzako irekia zegoen artisautza lan garrantzitsuenetakoa zela ere esan daiteke, batez ere aukera hau hirian aurkituko zutelarik (Mitidieri, 2018:10).

Mitidierik eta Álvarez Gilak beraien lanak 1850-60 bitartean kokatzen badituzte ere, gerora emigratu zuten emakumeei lan hau gaineratu dakieke. Honen adibide dugu Mario Vitullo (2012) jada 1900eko hamarkadatik euskal kolektibitateko emakumeek jostun lanak egiten zituztela Lavalloleko eskoletan ikasten zuten neska zein mutil pobreenentzat eta baita ere zaharrentzat.

*1. irudia:*

**DEDICACIÓN LABORAL DE LOS VASCOS EN LAS PARROQUIAS DE CATEDRAL  
AL NORTE Y SAN MIGUEL (SEGÚN SEXO). Año 1855**

<b>Trabajo</b>	<b>HOMBRES</b>	<b>MUJERES</b>	<b>Trabajo</b>	<b>HOMBRES</b>	<b>MUJERES</b>
Artisanado - Oficios			Repartidor	1	
Zapatero - Alpargatero	31		Talabartero	1	
Modista / Costurera		26	Tintorero	1	
Panadero	16		Jornalero o peón (sin especificar)	4	
Carpintero - Aserrador	11		<b>Comercio</b>		
Curtidor	11		Comerciante (dueño)	13	1
Albañil	10		Dependiente comercio	20	1
Herrero	7		Fondero (dueño)	6	3
Planchadora		6	Bares y cafés (dueño)	5	4
Confitero - Chocolatero	6		Bares y cafés (depdite.)	8	
Botero	5		Farmacéutico (dueño)	1	
Sastre	4		Dependiente farmacia	3	
Peón de caballeriza	2		<b>Servicio doméstico</b>		
Contable	2		Sirviente (mucama)	10	37
Lavandera		1	Cocinero	2	11
Calcetera		1	Cochero	1	
Aparadora		1	Nodrizas		2
Armero	1		<b>Rentista</b>	1	
Pintor	1		Amas de casa	1	12
Cigarrero	1		Estudiantes	4	2
Joyero	1		<b>Sin ocupación definida</b>	8	27
Peluquero	1				
Chacarero - Agricultor	1				

FUENTE: Elaboración propia. Censo de 1855

Iturria: Álvarez Gila, 2002: 475.

### 1.3.3.3. Esnearen ekoizpena

Euskal jatorridun esne-saltzaileak luzaroan egon ziren batez ere Argentinako hiri zein herrietan barrena. Sektore honetan emakumeek izan ahalko zuten presentzia uste dena baino handiagoa izan zitekeela pentsaratu dezakegu. Horren arrazoi nagusia aurrerago aipatu dudana euskal emakumeek patrioi sozial eta kulturekin batera emigratzen zutela izango zen. Hau da, Euskal Herrian etxea zen familiaren lehentasuna eta Amerikara emigratzean patrioi bera jarraituko zuten euskaldunek batez ere nekazal zonaldean instalatzen zirenean (Cruset, 2015). Hortaz, Euskal Herrian emakumeek baserriko lan produktiboan parte hartze zuzena izaten zuen heinean, pentsa genezake Argentinako esne-saltzaileen emakumeek paper bera betetzea posible zela. Hortaz, gizonak publikoki lan egin arren, hau da, kaleetan esnea saldu, nork jertziko zuen behia? Ziur aski etxean gelditzen ziren gainerako kideek, hala nola, emazte, alaba edo semeek.

### 1.3.3.4. Euskal nazionalismoan parte hartzea

Euskal kolektibitatean emakumeek bigarren mailako papera izan dute hasieratik eta beti ongintzazko lanekin lotuak dauden zereginak zituzten, hala nola, etxez etxe

joatea euskal familia behartsuei laguntzen, hau da, dirua, arropa edo janaria ematen; bisitak ere egiten zituzten *Patronato de la Infancia* eta ospitaleetara, esperantzazko hitzez ez ezik arropaz ere hornitzeko bertako ume eta zaharrak (Vitullo, 2012: 58). Orokorrean emakumeek mugak izan zituzten mugimendu nazionalistara batzeko, izan ere, euskal nazionalismoak ez zuen begi onez ikusten emakumeak eremu horretara sartzea (Vitullo, 2012: 53). Halere, bere mugekin bada ere, emakumeek parte hartzea izan zuten hemengo honetan.

Espainiako Gerra Zibilaren testuinguruak kausatutako beharrek ahalbidetu zuen (1930ko hamarkadan) kolektibitate eusko-argentinarrean eta baita ere beste leku batzuetan, Mexikon adibidez, emakumeek arlo honetan parte hartze nabarmenagoa posible izatea (Vitullo, 2012: 54). Erbesteratuei laguntzeko sortu zen *Emakume Abertzale Batza*, emakumeen instituzio propioa izango zelarik honakoa, baina ez zuen inolako apurketarik suposatu genero rolei dagokionean, instituzioa erbesteratuen asistentziara dedikatzen zelako (Vitullo, 2012: 55-56). Neurri handi batean rol femeninoak betetzen jarraitu arren, gizonen agintetik askatzea ere suposatuko zuen, instituzio honen baitan emakumeak zirelako erabakiak hartzen zituztenak (Vitullo, 2012: 61). Horrez gain, egindako lana izugarria izan zen emakumeen partetik (gizonena baztertu gabe, noski), erbesteratuei ekonomikoki bidaia eta etxea ordaintzen laguntzen ziotelako eta gerrako umeak zaintzera eta integratzera lagundu zutelako.

Marko teorikoan euskal emakume emigrantearen irudia aurkeztu ondoren, ikus dezagun aukeratutako liburuetan emakumeak nola irudikatzen diren. Zein izango da beraien papera? Lehen mailako hala bigarren mailako pertsonaiak izango dira emakumeak liburuetako istorioetan? Zer lan egokituko zaie? Familiaren baitan zein rol beteko dute? Zergatik bidaiatuko dute Ameriketara? Zer nolako bizitza izango dute Amerikan?

## **2.Euskal emakume emigrantearen irudia literaturan**

### 2.1.Corpora justifikatzen

Euskal emakume emigrantearen irudia aztertzeko aukeratutako liburuak Jon Andoni Irazustaren *Joañixio* eta *Bizia garratza da*, eta Robert Laxalten *Basque Hotel. Nacido en América* eta *Dulce tierra prometida. Un pastor vasco en el oeste americano* dira. Liburu hauek hainbat ezaugarri dituzte komunean. Hasteko idazle biek datu

autobiografikoak tartekatzen dituzte beraien idatzietan hortaz, beraien idatziek kutsu errealistago bat izango dute; nolabait Historia kontatzeko literatura erabiliko dute, egunerokotasunaren kontuak fikzizko narrazioaren baitan sartuz. Beste arrazoietakoa bat bi idazleek emigrazioaren ikuspegi osoa emango liguketela izango litzateke, biek emigrazioaren inguruko ikuspuntu osagarriak izango dituztelarik. Alde batetik Irazusta Euskal Herritik Amerikara emigratu zelako eta Laxalt Ameriketara emigratutako gurasoen semea zelako. Irazusta Hegoaldera joan zen eta Laxalt Iparraldean hazia eta hezia, beraz, emigrazioaren irudi edo ikuspegi osoagoa izan genezake autore hauen kontakizunen bidez. Horrekin batera kontinente guztian zehar egon ziren euskal emakume emigranteen irudi osoago bat ikus edo lor genezake. Azkenik, biek XX. mende hasierako istorioak kontatzen dituzte, guri interesatzen zaigun periodoaren baitan egonik, hortaz, liburu hauek ezin hobeak izan daitezke gure helburuak betetzeko.

## 2.2. Idazle eta liburuen aurkezpena

### 2.2.1. Jon Andoni Irazusta

1884ean Tolosan jaio zen, zuzenbide ikasketak egin ostean, legegizona izan zen bere jaioterrian. Hala ere, Euskal Herrian kazetari lanetan ere ibili zen. Politikaria ere izan zen Gipuzkoako Gorteetako diputatu izendatu zutelarik 1933-36 bitartean. Gerra Zibila zela eta, Frantziara eta gero Amerikara atzerriratu zen. Azken honetan hainbat lekutan bizi izan zen, Panama, Kolonbia, Puerto Rico, Argentinan (hemen denbora luzean finkatu zen eta herrialde honetan garatuko zuen bere alderdi literarioa, aztergai ditugun liburuak bertan idatzi zituelarik). Bere bizitzako azken urteetan Perura mugituko zen, bere nahia lortzeko: sazerdote eta misiolari izatea pasiotar kongregazioan. Handik eta gutxira, 1952an bere ametsa lorturik Liman hilko zen (Álvarez Gila, 2001: 112-113).

*Joañixio* (1946) liburuan Irazustak pertsonaiaren urterik onenak Ameriketara (Argentinan) lanean “alferrikaltzen” dituen pertsonaiaren istorioa kontatzen du. Aberrira itzultzean jada zaharra da eta bere ilobarekin (Maitexa) ezkondu ondoren, osasun gabeko umeak izango zituen. Hil zorian dagoenean bere azkeneko hitzek Ameriketara joan izanaren damua aitortzen dute.

*Bizia garratza da* (1950) eleberrian bi protagonistek Gerra Zibila dela eta Ameriketara joan behar dute (Irazustak berdina bizi izan zuen) kasu honetan



Kolonbian finkatuko ziren. Bi gizon hauek Ameriketara doazenean herrian utzitako emaztegaiez gogorarazten dira eta beraiek etortzeko desiran daude, Andoniren kasuan bere nahia bete zen baina Anderrek ez zuen zorte bera izan. Eleberriaren amaiera ere zinez da deigarria bi protagonistek eta beraien emaztegaiek gaizki amaitzen dutelako.

Irazustak bi liburuetan Amerikan izandako bizi gogorra erakusten du mezu argi batekin: Ameriketara joateak gauza onik ez dakarrela. Baliteke mezu hau bere izaera erlijiosoagatik kutsatua egotea, izan ere, eliza hasieratik migrazioaren aurka egon zen. Hortaz, kasu batzuetan baliteke euskal literaturak ikuspuntu ezkor hori jaso izana.

### 2.2.2. Robert Laxalt

Robert Laxalt Alturas, Kalifornian jaio zen 1923an. Bere bi gurasoak, Dominique eta Thérèse ipar Euskal Herritik Amerikara joandakoak ziren. Azken bi hauek ezkondu ostean Nevadako hiriburura mugitu ziren eta bertan Thérèse hotel baten arduradun zen bitartean, Dominique artzain lanetan ibili zen. 6 seme-alaba izan zituzten eta horietako bat dugu Robert Laxalt. Robert kazetari, idazle eta Nevadako Unibertsitateko editorialaren zuzendaria izan zen, baita ere azken honetako irakaslea. Unibertsitatearekiko zuen loturak beste arlo batzuetan ere nabarmentzea ahalbidetu zion, hala nola, Euskal ikerketa programaren sorreran 1967an. Bere ibilbide literarioa Estatu Batuetako mendebaldeko bizimoduaz hitz egiten zuten kontakizun laburrekin hasi zen. Gerora jada, idazle gisa izugarrizko ibilbide arrakastatsua izango zuen Pulitzer sarira bi aldiz proposatua eta Donostiako urrezko danborraren irabazlea izatera iritsiko zelarik (Río Raigadas, 1998).

*Dulce tierra prometida* (1957) historia erreala da, honetan Robertek bere aitaren emigrazioaren historia kontatzen du. Baita 47 urte Amerikan igaro ondoren aitaren bisita Euskal Herrira nolakoa izan zen. Azken bidai luze honetan Robertek lagundu zion aitari bere aberrira, hori dela eta kontakizun guztiz pertsonal eta intimista da.

*The Basque Hotel* (1989) ezaugarri semi-autobiografikoak dituzten triologiaren parte da honako eleberria (Río Raigadas, 1998: 12). Liburu honek Amerikan dagoen euskal emigrante familia baten historiak kontatzen ditu. Kasu honetan protagonista euskal imigranteen semea litzateke eta bere nondik norakoak kontatzen dira.

Liburu hauetan idazlearen bizitza erreala eta esperientzia pertsonalak biltzen dira, Laxaltek berak aitortzen duen moduan idazle batentzako esperientzia propioak

idazle batentzako berebizikoak dira, bere mugak zeintzuk diren jakiteko (Rio Raigadas, 1998: 18).

### 2.3.Liburuetako andrazko pertsonai esanguratsuenen aurkezpena

#### 2.3.1.Joañixio

Hiru emakumeren aipamena beharrezkoa dela iruditzen zait, alde batetik Marixan, Joañixiok Panpan ezagutuko zuen etxeko andre bat izango litzatekeena. Bestetik, Euskal Herriko testuinguruan kokatzen diren bi pertsonai aipatzea ere interesgarria litzateke, gure ikerketatik at egon arren, itsasoaren bi aldeetako emakumeen egoera konparatzeko baliogarria izan daitekeelako: Maitexa, Joañixioren iloba eta Euskal Herrira bueltatzean bere emaztea bihurtuko dena; eta Texa, Joañixioren arreba maitea.

#### 2.3.2.Bizia garratza da

Eleberri honetan bi protagonisten ezkongaiak aipagarriak dira. Lehena Miren zen, Anderren ezkongai, Ander Ameriketara joatean Euskal Herrian geratu zena. Urteak igaro ahala, biek topo egin zuten Kolonbian: Ander hil zorian zegoenean moja bat gerturatu zitzaion, nor eta Miren. Ander hainbeste maitatu zuen emakumearen eskuetan hil zen. Bigarren emakumea Bixenta dugu, Andoniren ezkongai Ameriketara joan aurretik. Andoni Kolonbian zegoela Bixentari beregana joatea proposatzen dio, baina Bixentak Andoni Kolonbian zegoen bitartean beste gizon batekin alaba bat izan zuen. Hala ere, gizonak abandonatu egin zituen bai bera eta umea, eta Bixentak Andoni ahaztu ezinean Kolonbiara joateko gonbidapena onartu zuen.

#### 2.3.3.Dulce tierra prometida

Thérèse Laxalten irudia nabarmentzen da, egilearen ama izateaz gain, hotel bateko agintaria da liburuan. Liburu hau autobiografikoa den heinean, idazleak amari buruz idatzitakoa guztiz erreal dela pentsatu daiteke.

#### 2.3.4.The Basque Hotel (1989)

Liburu honetako protagonista Pete da, mutil gazte bat, baina guk garrantzia emango diogu bere amari. Emakume hau Thérèse bezala, hotel bateko agintaria da eta horrek liburuaren kutsu autobiografikoa ere erakutsiko luke.

## 2.4.Liburuen analisia

### 2.4.1.Ameriketara joateko arrazoia

Irakurritako lau liburuetatik soilik bik aipatzen dute andrazko pertsonaiek zergatik aukeratzen duten Ameriketaranzko bidea. Irazustaren *Bizia garratza da* liburuan agertzen diren bi emakumeek bidaiaren arrazoiaren baitan gizon bat dute, horrela ikus daiteke adibidez Bixenta pertsonaiaren kasuan, zeinak Andonik Ameriketara joateko esan zioenean gutun baten bidez berehala Kolonbiara abiatzeko gogoia erakusten duen:

*Andoni maitea: Zertan joan zihan bakarrik? Zertan utzi niñuzun amaiera erratua bezela, biotzean eta buruan zu besterik ez nuala? Joango naiz. Bai, noski. Aldean beziñ azkar. Paperak biltzea ez da erraza izango, bañan nola edo ala uste det antolatuko dituala. Eta ezin ba det berriz, berdiñ, igesi joango naiz eta (...) Ia urte bete daukan alaba jaio zitzaidan, eta nere onekin bizi naiz iñola eziñ utzirik. Ara itz gutxietan nere lotsa ta nire okerra erakutsi. Jakiñaz gañera nai ba dezu, uste det igari ere joango nitzakela zurekin bizitzeagatik. Ezetz esaten ba dirazu, nire burua betirako galdua jotzen det, eta nere aurra zaindu besterik ez daukat. Agintzen dezuna agintzen dezula, bere gogoia agertu dizu benetan maite zaitun Bixentak (Irazusta, 1991a: 67).*

Beste pertsonaia Miren litzateke, zeina zuzenean ez bada ere, gizon baten aginduei jarraituz abiatuko zen Kolonbiarantz. Miren moja zen eta irudi honek nolabaiteko autonomia erakutsi arren, hau da, emakumeak (mojak kasu honetan) eurak bakarrik abiatzen direlako Kolonbia bezalako herrialde batera; joateko agindua seguruenik gizon batek eman zien, aukeraketa ez zen beraiena izan. Hala ere, liburuan esaten duen moduan hasiera baten garai hartan emakume batentzat Kolonbia bezalako herrialde batera bakarrik joatea pentsa ezina zen:

*Inork Mireni esan ba zion garai batean Ameriketara joango zala algarari emango zion. Bañan bera sartu zan tokiko lekaiameak erabaki zuten Ameriketean fundazio berri bat edo egitea, ta Miren beste batekin aukeratu zuten lan ortarako, maitekorra ta biotzkorra zala ta (Irazusta, 1991a: 94).*

Pertsonai hauen arrazoiei erreparatuz, argi dago zeharka zein zuzenean izan arren, biei gizon baten eskaerak bultzatu ziela Ameriketaranzko bidea hartzen. Honek argi utziko liguke garai hartako ikuspegia zein zen, emakumeek erabakiak ezin zituztela beraiek bakarrik hartu, gizonen baten irudia behar baitzuten, emakumeak beraiek bakarrik joatea ez zegoelako ondo ikusia. Kontuan hartzekoa da baita idazlearen mentalitatea bera, erlijiosoa eta nahiko kontserbadorea gainera, EAJ-ko kide izana (Álvarez Gila, 2001). Beraz, ez da arraroa Irazustak emakumeak beraien erabakien jabe ez izaten irudikatzea.

Laxaltek ere *Dulce tierra prometida* liburuan Thérèsen Ameriketara joateko erabakia justifikatzeko gizon baten irudia erabiltzen du: *Vino a América solamente para ver a su hermano que había sido soldado del ejército francés y que se estaba muriendo a causa del gas tóxico que había inhalado durante la guerra* (Laxalt, 1957: 75). Kasu honetan idazleak bere amaren arrazoa Ameriketara abiatzeko bere nebaren hiltzoria izango litzateke. Baina benetan Thérèseri bultzatu ziona hori izan zen? Idazleak irudi hori ematen digu, baina ziur aski Laxalten amak emigratzea zuen helburu, eta ez neba zaintzea. Beraz idazleak aurkezten diguna zer izango zen, emigratzeko arrazoa ala aitzakia? Gogoan izatekoa da Laxalten beraren pentsamoldea ere, Ameriketara jaiotakoa zen, errepublikanoa eta nahiko kontserbadorea ere, emakume ezkongabe batek Ameriketara bakarrik joatea ez zuen oso ondo ikusiko, are gutxiago bere ama izanda, beraz, gizon baten figura beharko du idazleak berak, Thérèsek baino.

#### 2.4.2.Emakumeen lana

Bi idazleek andrazko pertsonai guztiak zerbitzu eta etxeko lanekin lotuko dituzte, etxetik kanpo lan egin arren, sukaldaritza edo zerbitzari lanetan ibiliak izango dira guztiak. Irazustaren kasuan *Joañixio* liburuan Euskal Herrian geratzen diren emakume bat neskame izango da Donostian, bestea, gaztea izanagatik oraindik etxean jarraituko zuen etxeko lanak egiten lagunduko zuelarik. Dena den, *Bizia garratza da* liburuaren kasuan, bada salbuespen bat Miren, moja delako: *lekaiameak erabaki zuten Ameriketara fundazio berri bat edo egitea, ta Miren beste batekin aukeratu zuten lan ortarako, maitekorra ta biotzkorra zala ta* (Irazusta, 1991a: 94). Bitxia iruditu dakiguke idazleak etxetik kanpo edo zerbitzu lanekin erlazionatzen duen andrazko pertsonai bakarra moja izatea, hala ere, gogora dezagun mojek beraien bizia ere gizon baten menpe bizi dutela, Jainkoa, alegia. Hala ere, emakumeen artean Mirenen irudia nolabait

berritzaileagoa irudikatzen du oro har idazleak, izango ote du lotura irudikapen honek idazlearen izaera erlijiosoarekin? Ziur aski lotura izango dute idazleak fikzioa datu autobiografikoekin uztartzen dituela kontuan hartuz gero.

Laxaltek andrazko pertsonaiak arestian aipatu bezala, etxeko lanekin zein zerbitzari lanekin lotzen ditu, pasarte hauetan *Dulce tierra prometida*-n agertzen den bezala:

*Vivían en una gran casa blanca (...) Y aunque ella tenía que ocuparse de tareas como la de preparar la comida para todos los pastores, vaqueros y ayudantes, y aun supervisar la crianza de los cerdos (...), todavía encontraba tiempo para bordar, leer, dar largos paseos bajo el sol otoñal y hacer planes para la llegada de su primer hijo (Laxalt, 1957: 135).*

Thérèse sukaldari lanetan eta zerbitzari lanekin lotzen du eta Garikanok (2009) argitaratzen duen moduan Thérèsek Ameriketara izandako lana hori izan zen. Hala ere, aurkeztutako bigarren pasarteetan idazleak esaten du Thérèsek zeukaten dirua bildu eta berak Carson City-n hotel bat erosi zuela. Aspektu hau garaiko emakumeentzako nahiko berritzailea izango litzateke, Euskal Herrian ziurrenik emakume batek XX. mendeko lehen hamarkadetan ezin izango zuelako dirua kudeatu gizonaren baimenik gabe. Kasu honek ordea, Ipar Ameriketara emakumeek dirua kudeatzea ohikoa izango zela erakutsiko liguke. Thérèseri dagokionez ere bada beste pasarte bat garai hartako emakumeek ez bezala, berak egitea posible izango zuena: *Mi madre era una mujer práctica. Su familia tenía un pequeño hotel y una agencia de viajes en Burdeos, y allí había aprendido bastante sobre el negocio, asistiendo incluso, (...) a una escuela de cocina en París (Laxalt, 1957: 75).* Thérèsek Frantziara posible izan zuen heziketa bat jasotzea, garaiko emakume askok izango ez luketena, aspektu hau lanarekin zuzenean zer ikusirik izan ez arren, azpiatal honen baitan sartzea egokia litzateke zeharka bada ere lanarekin lotua egongo delako. Izan ere Thérèsek sukaldari lanak ere egin zituelako eta horretan jasotako ikasketek lagunduko zion. Gainera pasarte honek ere erakutsiko liguke Laxaltek zuen ikuspegia Irazustarekin konparatuz gero, izan ere Laxalt Ipar Amerikan hezia izan zenak emakumeen hezkuntza ez lukeelako Irazustak (Euskal Herrian hezia) bezala ikusiko. Hala ere, Laxaltek ez du emakumea zerbitzu lanetatik edo etxeko lanetatik at kokatuko.

### 2.4.3.Emakumearen rola familiaren baitan

#### 2.4.3.1.Seme-alabekin

Amen eta seme-alaben arteko harremanak irudikatzerako orduan ez dago inongo ezberdintasunik autoreen artean, biek irudikatzen dituzte emakumeak gizarteak hauei egokitu dien rolen baitan, ugalketa eta zaintza lanetan alegia. Irazustaren kasuan *Joañixio* liburuan bai Argentinan eta baita Euskal Herrian dauden emakumeak arduratuko dira seme-alaben zaintzaz: *Goazen -esan zun Marixanek- gizonak bere lanean utzita guk arratsalde erdirako zerbait ipiñiko degu* (Irazusta, 1991b: 86). Pasarte honek Argentinan zegoen Marixanek bere seme-alabei gizonak lanean jarraitzen zuten bitartean berak eta seme-alabek jateko zerbait prestatuko zutela esaten die. Honakoan ikus daiteke idazleak pertsonaia honi “emakumearenak” diren ardura guztiak atxikitzen dizkiola, bai sukaldeko lanak, baita seme-alaben zaintza eta baita etxetik kanpoko lana nolabait gizonei egokitzen zaiela. Emakumeen “berezko” papera ere erakutsiko liguke Laxaltek *Dulce tierra prometida*-n aurkezten digun irudiak: *Salvo por el retrato de boda, (...), la casa presentaba muy pocas señales de la existencia de un padre* (Laxalt, 1957: 70). Adibide honek ere irudikatuko liguke ama dela etxean geratzen zena eta aitaren lana etxetik kanpo zegoela, seme-alaben heziketa eta zaintza soilik emakumeen ardura izango balitz bezala.

Seme-alaben heziketa ere amen kontua zela erakutsiko liguke Laxaltek bere bi liburuetako pasarteetan. Semeen ikasketez kezkatzen direnak emakumezkoak izango dira beti, beraien semeak unibertsitateko ikasketak burutzera bultzatu zituztenak, honen adibide dugularik *Dulce tierra prometida*-ko pasarteak: *Fue su madre la que siempre insistió en que fueran a la universidad. Eso parecía ser lo que ella más anhelaba en la vida: ver a sus hijos convertidos en hombres cultos* (Laxalt, 1957: 159). Ez soilik liburu honetan, Laxaltek oso presente dauka amaren aspektu hau eta *The Basque Hotel* liburuan ere semearentzat zuen aspirazioa aipatzen du: *Su madre le había dicho a su padre que debían ir por el bien de Leon. En realidad, lo que quería decir era por el bien de ella. Estaba claro para Pete que ella tenía grandes proyectos para Leon* (Laxalt, 2007: 62).

Autore biek amaren papera etxera mugatzen dute, aitarena etxetik kanpoko lanarekin lotzen duten bitartean. Gainera amek seme-alabekiko zuten zaintza papera eta beraientzako hoberena nahi zutela uneoro agertzen da liburuetan zehar, *Joañixio*

liburuan, Maitexa oso kezkatuik dago umeak oso ahul jaio zitzaizkiolako, Marixanek ez du Euskal Herrira bueltatu nahi bere seme-alabak jada Argentinan haziak zirelako eta bere familia bertan dagoelako. Laxaltek ere bere liburuan aitaren hitzetan jartzen du bere amak zuen nahi bakarria seme-alabekin egotea zela: *Creo que tiene miedo de que le suceda algo aquí, lejos de sus hijos. Quiere estar ahí donde pueda verlos y ayudarles en caso de que tengan algún problema* (Laxalt, 1957: 133).

Guztiek irudikatzen dute emakumea bere paper hegemonikoan, hau da, seme-alaben ugalketa eta zaintzan, hala ere, bada salbuespen bat, *Bizia garratza da* liburuko Miren moja. Honek aukeran edo aukerarik gabe, emakumeari egokitu zaion ohiko paperarekin apurtzen duelako moja izatean.

#### 2.4.3.2. Bikotearekin

Bikoteen arteko harremanen artean baliteke ezberdintasun ttipiak agertzea Ipar eta Hegoaldeko Amerikan, kontuan hartzekoa da Irazusta Euskal Herrian hezitakoa dela eta oso mentalitate erlijiosoak duela, hortaz, berak irudikatutako bikoteak askoz tradizionalagoak izango dira. Horrekin batera emakumearen jarrera gizonekiko lausoagoa edo menpekoak direla irudikatuko dira: *Zenbat bider esan zion: “Zurekin bizitzeagatik etorri nintzan eta ez naiz zurekin bizi”*. *Andoni dirua irabaztearekin itxutua zegoen eta erantzuten zioenean lenengo dirua bear zutela esateko izaten zan* (Irazusta, 1991a: 95). Pasarte honek Bixentaren ezintasuna erakutsiko liguke, Andoniren emaztea bakardadean bizi baitzen. Ameriketara abiatu zen nolabait Andonik bere alabari aita izateko aukera bat emateko eta bere barnean zeukan ezinegona ere baretzeko. Urte batzuk lehenago alaba bat izan zuelako gizon batekin, ezkondu gabe eta honek biak abandonatu zituelako. Hortaz, idazleak garai hartan emakume batek seme-alaba bat bakarrik izateak suposatzen zuen moraltasun eza erakutsiko luke. Gainera emakume horrek gauzatutako “bekatua” nolabait konpontzeko eta gizarteak eskaini zion irudia, emagaldurena, aldatzeko familia bat eraikitzeko, hau da, garai hartan emakume batek egin behar zuen papera betetzeko, edonora joateko prest zegoela ere erakutsiko liguke. Behin eta berriz emakume batek gizon baten beharra zuela aditzera emanez, eta berak, familia “tradizionala” eraikitzea egokiago zuela.

Hala ere, Irazustak Mirenen paperari emakumearen irudi horri, arestian aipatu bezala, apurketa ttipiak eskaintzen dizkio, moja izanik familia “tradizionala” eraikitzeari uko egiten diolako eta Euskal Herrian geratu beharrean, Kolonbiara alde egingo duelako

beste lekaike batzuekin. Ohiko irudiari uko egingo dio pertsonaia honek. Emakumeen artean Maitexak ere nolabaiteko asaldura erakutsiko luke Joañoixiorekin ezkontzeko gogo eza dela eta: *Agure ori?-ta negarrari eman zion. (...) -Ez, ama; ez, ez ta ez; naigo det neskame joan –eta alde egin zuen sukaldera* (Irazusta, 1991b: 125). Azkenean ezkonduko diren arren, bere nahia hasiera batetik ez da hori, eta amarekin enfrontamendua izatea ez zen alaba batengatik espero zena garai hartan.

Iparraldeko kasuan ordea, Laxaltek eskaintzen digun bikote eredua guztiz ezberdina litzateke. *Dulce tierra prometida* liburuan Euskal Herritik at ezagutzen eta ezkontzen diren bikote eredua da. Eta hauek nahi dutelako ezkontzen direlako, inork esan ez inposatu gabe. Hala ere, Thérèsek ordu asko igaro behar izan zituen bakarrik, senarra kanpoan lanean zelako. Irazustak erakusten duen emakumearen eta Laxalten emakumearen artean bikotearen baitan ezberdintasunak daude. Irazustak emakume otzanago bat erakusten duelako, Laxaltek aldiz ez, emakumeak gizonaren esan guztiei ez diolako men egingo eta bere iritzi eta autoritatea ere eman eta erakutsiko duelako: *Se le ocurrió que debería “reservar el traje” y hacer el viaje con las botas, los vaqueros y un jersey. Pero mi madre impuso su autoridad y él, aunque de mala gana, consintió en meter todo eso en la maleta* (Laxalt, 1957: 107).

Laxaltek hala ere, bikotearen baitan ez du berdintasunik erakusten, gizona beti emakumearen gainetik egongo baita, Irazustak eskainiko lukeen irudi bera, baina modu apalago batean. Adibidez *The Basque Hotel* liburuko kasuan argi ikus daiteke paper hau:

*Estaba contenta y tranquila por la nueva vida y el tiempo para bordar y coser y cuidar la casa (...) después, su humor cambió, enfadándose por las prolongadas ausencias de él, preocupándose por el futuro, y finalmente asumiendo con determinación la responsabilidad del cuidado de los hijos* (Llaxalt, 2007: 115).

Emakume honek Hotela saltzea erabaki zutenean ekonomikoki garai hobekak zirelako eta jada beharrezkoa ez zelako lan hori mantentzea, gizona mendira itzuli zen eta emaztearen esanak entzun gabe egunak igarotzen zituen mendian, emazteak bere eginbeharrak zeintzuk ziren aukeratzeko eskubidea izan gabe. Argi dago bi idazleek emakumearen menpekotasuna “ohikotzat” zutela bikotearen baitan, hala ere, Ipar Ameriketako irudia edo behintzat Ipar Amerikan sortutako bikoteek eredu



berdintsuagoa jarraitzen dute, emazteak gizonaren aurrean beraien autoritatea erakusteko gai direlako. Alabaina, Irazustaren kasuan badira emakumeen errebeldia edo “ohiko” irudi xumeei kontra egiten dieten pasarte txikiak.

#### 2.4.4.Euskal Herriarekiko lotura

Euskal Herriarekiko loturari dagokionez, idazleek ideia kontrajarriak dituztela aditzera emango lukete. Irazustak emakumeen pertsonaiei Euskal Herriarekiko lotura handiagoa ezartzen dien bitartean, Laxaltek irudikatutako emakumeak errotik ez bada ere Euskal Herriaz ez dira asko oroitzen. Gogora dezagun Irazustak Euskal Herritik alde egin behar izan zuela eta oso erlijioso izanda ere ez lukeela modu oso onean ikusten emigrazioa, are gehiago aztertutako bere bi liburuek Ameriketara joandako pertsonaiak *Joañixio*-n Euskal Herrira bueltatzen dira eta bueltatzen ez direnak bertan familia bat dutelako da. Azken honen adibide dugu Marixanen pasarte bat: *Ala da bai. Gu ere ez giñan berealakoan oitu. Ondorengoak etorri ziran ta orixe. Bakarrik izan ba giñan seme-alabarik gabe, onezkero Ustaritzko elizan hamaika meza nagusi entzun giñuzen* (Irazusta, 1991b: 86). Horrez gain, gainerako emakumeak liburu honetan Euskal Herrian kokatzen ditu nolabait Euskal Herriari lotua zegoen emakumea hobea zela irudikatu nahian.

*Bizia garratza da* liburuan ere Bixentaren pertsonaiarekin emakumeak Euskal Herriarekiko duen lotura ikus daiteke Kolonbiara ezin delako ohitu eta Euskal Herrira bueltatzen delako azkenean bikotearekin gauzak ondo ez doazenean: *Gauza batek alaitzen zuan: Euzkadiko lurrak ikusi edo ez ikusi zeuden garaiean, itxasoak beste usai bat zeukala iruditzen zitzaion (...) Toki aiek ikustearekin artzen zuan pozak belar ondu usaia ere ekartzen zion* (Irazusta, 1991a: 110). Iristean poza soilik bizitzen duela esaten da liburuan zehar eta aldiz, Kolonbian Bixentari penak biziaraztea soilik egokitu zitzaion.

Laxaltek irudikatutako emakumeak bi liburuetan Euskal Herriko ohitura txikiak zein oroigarriak izan arren, Euskal Herriarekiko zuen lotura guztiak apurtuko ditu. Laxalt Ipar Amerikan jaioa da, Irazusta ez bezala beraz, bere aberria Amerika da, euskal amerikarra sentitzen da eta bere amak, kultura transmititzearen arduradunak, Euskal Herriarekin apurtzen duen heinean, bere seme-alabek ere horrela jokatuko lukete. Thérèsen kasuan argi dago berak bere etxea Ameriketara zeukala: *Pero una vez aquí, mi*

*madre se enamoró de América y de su forma de vida, y nunca mostró deseos de volver a Francia* (Laxalt, 1957: 75).

### **3.Ondorioak**

Lan honen helburuen muina gertakari historikoak kontuan izanda, euskal emakume emigrantearen irudia liburu hauetan nola islatu den hausnartzea litzateke. Hori horrela izanda, helburuen baitan ditugun galderak berrartuko ditugu, eta hasteko lehenengo galdera erantzuten saiatuko gara: nola dago Ameriketara emigratutako euskal emakumea irudikatua liburuetan? Galderari erantzuna emateko euskal emakumeak izandako paper ezberdinak aztertu ditugu liburuetan zehar, hala nola, Ameriketara joatearen zergatia, emakumeek bertan izandako lana, seme-alabekin eta bikoteekin izandako harremanak edota Euskal Herriarekiko izandako lotura. Liburu guztiek erakutsi digute euskal emakumeak Amerikara joateko gizon baten irudiaz baliatu zirela. Horrez gain, liburuek emakume horien lana etxeko lanekin lotzen dute, nahiz eta etxetik kanpo lan egin eta ekonomia aktiboan parte hartzeko aukera izan, etxeko lanak eta zerbitzari lanak ziren emakume hauen lanbide bakarrak, mojaren salbuespenarekin. Familiarekin zituen harremanei dagokionez ere, gehienbat emakumeari egokitu zaion papera betetzen dute liburuetako pertsonaia hauek ere, seme-alaben heziketa eta zaintza beraien esku gelditzen dela eta gizonaren zerbitzupuan daudela uneoro, oro har bikoteen arteko harremanetan ez zegoen erabateko berdintasunik, nahiz eta idazleek bikoteen harremanak modu ezberdinean ikusi. Azkenik, Euskal Herriko loturari dagokionez, idazle bakoitzak modu ezberdinean irudikatzen dituzte emakumeak, alde batetik, Irazustak emakumeek Ameriketara egokitzeo zailtasunekin eta kasu batzuetan jatorrizko aberrira itzuliz. Bestetik, Laxaltek irudikatutako emakumeek Euskal Herriarekin zituzten loturak apurtuko dituzte.

Bigarren galdera aurrekoari lotua dago, zenbateraino dira irudikapen hauek gertakizun historikoen isla? Marko teorikora joz gero, argi ikusiko dugu liburu hauek erakusten digutena ez dela historian edo euskal emakume emigranteek bizitako bakarra. Badirelako emakume asko gizon bati jarraitzen joan ez direnak Amerikara. Lanari dagokionez, liburuetan 3 lanbide bakarrik ikusi dira, etxeko zerbitzaria, hotelariak edo etxeko andreak. Hala ere, badakigu euskal emakumeak jostun, esne ekoizle, euskal kolektibitateetan boluntario gisa edota euskara andereño bezala ere ibili zirela. Seme-alaba eta bikoteekin mantentzen zituzten harremanei zoritxarrez ezin geniezaieke ezer

berririk gehitu, euskal emakume emigrantearen bizitza pribatuaz gutxi esan delako. Hala ere, liburuak errealitatearen isla izango direlakoan gaude, emakumeari betidanik egokitu zaion rola agertzen baita, gaur egun ere mantentzen dena. Azkenik, Euskal Herriarekiko zuten loturari dagokionez, ematen du egia zela emakume gehienek ez zutela nahi izaten etxera bueltatzea, bertan familia bat eraiki zutelako edota askatasun gehiago zeukatelako. Alabaina, Arostegik (2018) aipatzen duen moduan, badirudi Iraizoz Cia-k bere lanetan Aezkoa Bailara inguruko emakume askok Amerikara alde egin zutela lanera baina ezkongabeak Euskal Herrira bueltatzean bailaran bertan lurrak erosten zituztela. Beraz, nahiz eta liburuek itzulera bai aipatu (Bixentaren kasua), itzulera nolabait damuarekin lotzen da eta emakume guztien errealitatea ez zen hori izan. Badirudielako Euskal Herrira bueltatzea bidaia baino lehenago, kasu batzuetan, beraien planetan egotea.

Liburu guztietako protagonistak gizonak dira, emakumea gizonen istorioen gehigarri gisa agertzen delarik, gainera andrazko pertsonaia gehienak etxekeko pribatutasunean eta etxetik kanpo lan eginez gero zerbitzu lanetan, umeak zaintzen eta gizonen erabakiei men egiten irudikatu izan dira. Hala ere, Miren lekaiamearen pertsonaiak irudi hori ez luke guztiz beteko. Hortaz, lan honek argi uzten digu emigrazio kontua emakumeena ere izan dela eta Nevadako zein Idahoko artzainen edo Argentinako esne saltzaileen atzean emakumeen presentziak zer esan handia izan zuela eta hori oraindik gehiago aztertu eta sakondu beharreko zerbait dela. Historiaren parte gizonak ez ezik, emakumeak ere izan zirelako eta direlako. Luccik eta Crusetek (2016) bere lanaren hasieran egiten duten aipamen bat geureganatzea gustatuko litzaidake *Emigrar es desaparecer para después renacer* (Nair eta Goitisoló, 2000: 19). Esaldi honekin bat etorriko lirateke euskal gizon emigrante anonimoak Ameriketara artzain ibili ondoren, heroi moduan berpiztu zirenak historiografian edota literaturan, baina euskal emakume emigranteekin berdina gertatu al da? Ez dugu uste, hortaz, bada ordua guztiei berpizteko aukera emateko.

## Bibliografía

Álvarez Gila, O. (2001): “Notas sobre la etapa más desconocida de un político y escritor vasco: Jon Andoni Irazusta, de parlamentario a misionero en Perú (1950-1952)”, *Sancho el Sabio*, 14, 111-120.

Álvarez Gila, O. (2002): “Catálogo de los vascos en el censo de Buenos Aires de 1855: Las parroquias de Catedral al Norte y San Miguel”, *Vasconia*, 32, 459-490.

Arostegi, E. (urriak 30, 2018): *Las mujeres son las que sustentan la comunidad vasca en el oeste*, [https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/la-casa-de-la-palabra/detalle/5955137/las-mujeres-son-sustentan-comunidad-vasca-oeste/?fbclid=IwAR055pj\\_gpZdZ9Tl95-ptTu-neY1AAc3BAWfJgOifV57om\\_Xkz5oKuY4bEU-](https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/la-casa-de-la-palabra/detalle/5955137/las-mujeres-son-sustentan-comunidad-vasca-oeste/?fbclid=IwAR055pj_gpZdZ9Tl95-ptTu-neY1AAc3BAWfJgOifV57om_Xkz5oKuY4bEU-) en ikusia.

Cruset, M. E. (2009): “Asociaciones Vascas e Irlandesas en Argentina”, *Relaciones Internacionales*, 37, 131-145.

Douglass W.A eta Bilbao, J. (1975): *Amerikanuak. Basques in the New World*, Nevada, University of Nevada Press.

Echevarria, J. (1999): *Home Away from Home: A History of Basque Boardinghouses*, Nevada, University of Nevada Press.

Elizondo, E. (2010): “Mundu bat Far Westen”, *Berria aldizkaria*.

Fernández Fonseca, M.J eta Prado Antúnez, A. (2000): “Roles femeninos en la Bizkaia del siglo XIX: aproximación a la situación de la mujer en el mundo laboral en ámbitos pesqueros urbanos”, *Itsas Memoria Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 3, Donostia-San Sebastián, Untzi Museoa-Museo Naval, 277-287.

Garikano, A. (2009): *Far Westeko Euskal Herria*, Pamiela.

Gil Lázaro, A. (2019): *El retorno de la inmigración en la economía española del siglo XX*, Vitoria-Gasteiz, Micaela Portillo ikergunea.

González Pérez, T. (2005): “Mujeres, analfabetismo y emigración: mujeres canarias en la ruta americana”, *Tebeto: Anuario del Archivo Histórico Insular de Fuerteventura*, 18, 53-84.

Irazusta, J.A. (1991a): *Bizia garratza da ...*, Zarautz, Erein.

Irazusta, J.A. (1991b): *Joañixio*, Zarautz, Sendoa.

Irianni, M. (2010): *El árbol en el bosque. Otra mirada*, Organización, identidad e imagen de las colectividades vascas de la emigración (siglos VXI-XXI)-n, EHU-ko Argitalpen Zerbitzua. 225-237.

- Irianni, M. (2016): “Hotelería y sociabilidad vasca en América”, *Sancho el Sabio*, 39, 9-31.
- Irianni, M. (2019): *Los vascos en el borde del mundo: inmigración a Tandil (1860)*, Vitoria-Gasteiz, Micaela Portillo ikergunea.
- Laxalt, R. (2007): *The Basque Hotel. Nacido en América*, Donostia, Ttarttalo.
- Laxalt, R. (1957): *Dulce tierra prometida. Un pastor vasco en el oeste americano*, Donostia, Ttarttalo.
- Lucci, M eta Cruset, M. E. (2016): “Ellas también migraron. Huellas de catalanas y vascas en la Argentina de principios del siglo XX”, *Boletín Americanista*, año LXVI. 2, 73, 181-202.
- Mitidieri, G. (2018): “Entre modistas de París y costureras del país. Espacios de labor, onsumo y vida cotidiana de trabajadoras de la aguja, Buenos Aires, 1852-1862”, *Trashumante. Revista Americana de Historia Social*, 12, 8-29.
- Pérez Garzón, J. S. (2011): *Historia del feminismo*, Barcelona, La Catarata.
- Río Raigadas, D. (1998): “Robert Laxalt: Intérprete de la inmigración vasca en el Oeste Americano”, *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 8, 11-22.
- Santiso González, M.C. (1993): “Emigración vasca entre 1840 y 1870. Pautas de análisis acerca del éxito vasco en América: cadenas familiares, primeras letras y otras consideraciones”, *Boletín de la Asociación de Demografía Histórica*, XI, 1, 83-105.
- Vitullo, M. (2011): “La ayuda a los exiliados vascos en la génesis argentina de *Emakume Abertzale Batza*. (1938-1943)”, *Migraciones y exilios: cuadernos de la Asociación para estudio de los exilios y migraciones ibéricos contemporáneos*, 12, 49-61.